

BERTSO LATA



Maia eta Amuriza Kixkalen.

Goikoetxea, Colina eta Iturriaga Arrigoainen.

Lujanbio eta Aizpurua Biterin.

Bertso jaialdi nagusia gaur Sandiusterrin

■ Sei bertsolari ariko dira: Andoni Egaña, Angel Mari Peñagarikano, Joxe Luis Urdangarin, Aitor Mendiluze, Unai Agirre eta Aitor Sarriegi ■ Saioa 19:30etan da, Sandiusterrin ■ Prezioa 3 euro.

BERTSO Lata aurrera dioa, baina, ez Hernanin ekitaldi ugari eta giro onik utzi gabe. Dagoeneko bost bertso saio eta hitzaldi bat izan dira eta gaurko bertso jaialdiak eta astearteko errondak emango diote errematea aurtengoari. Aurtengoa 8garren edizioa da eta jendearen erantzuna ikusita, badirudi Bertso Latak bere tokia egin duela Her-

nanin, gabon buelta honetan.

Gaur sei bertsolari

Sei bertsolari ariko dira gaur Sandiusterrin: Andoni Egaña, Angel Mari Peñagarikano, Joxe Luis Urdangarin, Aitor Mendiluze, Unai Agirre eta Aitor Sarriegi. Azken urteetan giro espeziala egon izan da bertso jaialdian, eta saio onak eta oso onak ere

atera izan dira.

Saio ezberdinak

Iraulio Panttalone bertso eskolaren filosofia da modu desberdineko saioak antolatzea, publiko guztien gustoa egite aldera. Umeentzako saioa, Hernaniko bertsolarien taldekako txapelketa, bertsolaritzaren inguruko hitzaldiak, Xabier Amuriza eta Jon Maia

bertso jarriak kantatzen, Iturriaga eta Colinak egindako bertso trama eta atzoko kale antzerkiak bertsoa modu diferentean gozatzen duen jendea inguratu dute saioetara. Kantatu, berriz, Hernaniko nahiz Hernaniz kanpoko bertsolariek kantatu dute; hori baita Iraulio Panttalonen beste helburua, bertsolari guztiek aukerak izatea. □



Jon Casas, Peru Alfaro eta Andrea Izagirre atzo irabazitako sariekin.

Ander Ormaetxea eta Amaia Amundaraintzat Gobonetako Igeriketa Saria

ATZO jokatu zen Hernanin Gabonetako igeriketa saria. Mutiletan Ander Ormaetxea ordiziarra izan zen irabazlea; nesketan Amaia Amundarain Igarondo taldekoa. Mutiletan bigarren eta hirugarren Peru Alfaro eta Jon Casas hernaniarrak gelditu ziren eta nesketan bigarren Andrea Izagirre hernaniarra. Atzo 140 bat igerilarik parte hartu zuten, horietatik 30 bat hernaniarrak. Igeriketa taldeak 100dik gora domina banatu zituen kategorian eta estilo desberdinetan. □

Etixerat elkarteko zozketan 2708 zenbakia atera da

ETXERAT elkarteak ostiralean egin zuen gabonetako zozketa eta 2708 zenbakiari egokitu zaio saskia. Saritua urtarrilaren 3rako agertzen ez bada bi zenbaki gehiago ere atera dituzte badaezpada: 0487 eta 2983.

Bestalde, Hernaniko Etxeratek dei egin du gaur Legazpira joateko, Angel Leteren aldeko omenaldira. Gaur da omenaldia Legazpiko plazan, 17:00etan. □

Martuteneko espexera martxa

AMNISTIAREN Aldeko Mugimenduak antolatuta Martuteneko espexera martxa egingo da gaur, presoak Euskal Herrira ekartzearen alde eta amnistiaren alde. Irteera goizeko 11:30etan izango da Astigarragako poligono sarreatik. Hernaniko Amnistiaren Aldeko Mugimenduak dei egin die herritarrei martxan parte hartze-ko. □

Umeentzako ipuiak bihar goizean Biterin

ITZIAR Zubizarrata ipui kontalaria ariko da bihar goizean Biteriko liburutegian, Hernaniko gaztetxoenei zirrara sortzeko ahaleginean. Bi sesio emango ditu Zubizarretak: lehenengoa 11:00etan, 3-4 urteko haurrentzat; eta bestea 11:45etan, 5-7 urte artekoentzat. □

Herri barruko autobus biletea 40 xentimo urtarriletik aurrera

JOAN den osteguneko plenoak hala onartuta 0,40 euro kostako da herri barruko autobus biletea datorren asteazkenetik aurrera. Herri barruko autobusak Urbieta, Antziola, Sagastialde, Etxeberri, Urbieta, Zikuñaga buelta egiten du. □



emakumeek Hernaniko historiari egindako ekarpena

JENDAURREAN HITZ EGITEKO IKASTAROA

“Taldean partehartzea eta jende aurrean hitz egitea lantzeko”.

Emakumeei zuzendua

Urtarrila eta otsailan: Asteartetan

Bi ordutegi: 14:30 - 16:30

19:30 - 21:30

Lekua: Biteri Kultur Etxea
Izen emateko epea: *Urtarrilaren 3a*

LOGOTIPO LEHIAKETA: Epea: 2003-01-10
“Berdintasun Kontseiluaren Logoa”

Oinarriak eta informazioa:

Ongintza Patronatuko Berdintasun Saila
Karobieta 63 - Hernani - Tel.:943 55 78 54



Zapa 8 - Tel.: 943 33 15 06 -



TXIMELETA
OPARIAK
Txirrita 10
943 55 23 95
HERNANI

BEGIRA OPTIKA



URBIETA 8, TEL.: 943 55 41 54 HERNANI

Zaharren egoitzako langileek zuzendaritzaren jarrera salatu dute

■ Enpresa zuzendaritzaren jarrera "autoritarioa, harroa eta zitala" dela diote.

HERNANIKO Zaharren egoitzako langileek zuzendaritzaren jarrera salatu dute, Kronikara bidalitako prentsa ohar batean. Patronatuko zuzendaritzaren jarrera "autoritarioa harroa eta zitala" dela diote eta egoera salatu eta beren "lantokiko errealitatearen berri" eman dute prentsa oharrean.

Sei puntu

Zaharren egoitzako langileek

beren laneko egoera hauek salatzen dituzte:

- "Egutegi duinik eza. (2, 4, 6:30, 8 orduko jardak; 4 orduko jornada zatituak; 4 asteburu segidan lana)".
- "Oporretako 24 jai egunak ez daude jai egun bezala errekonozituta, igande eta jai egunetan lan eginda akumulatutako ordu bezala baizik".
- "Kategoria profesional beren 3 egutegi desberdin daude,

eta egutegi horiek enpresa zuzendaritzak ematen ditu nahi bezala".

- "Asanblea eta enpresa komiteari errespetu falta".
- "Kriterio aldaketa, enpresako interesen arabera (ez dira listak erabili zenbait lan egiteko jendea hartzerakoan. Enpresak nahi dituenak hartu ditu)".
- "Langileek egindako proposamenen aurrean enpresaren itxikeria". □

■ PLATER TIRATZEA



Atzoko parte hartzaileak beren sariekin. Xabier Mujika, tente ezkerretik bosgarrena.

Xabier Mujika irabazle 15 platerak jota. Txantxangorriko San Silvestre saria Xabier Mujikak eskuratu zuen atzo Santa Barbaran, Mini Foso modalitatean. Mujikak 15 platerak jo zituen eta ez zuen neurrikorik izan. Lehenengo kategoriako onena izan zen Mujika; bigarren, Kristobal Barragan gelditu zen, 13 plater jota; eta hirugarren, Manuel Loinaz, 11 plater jota. Bigarren kategorian, Fernando Galan izan zen onena, 14 platerekin; bigarren, Luis Garayar, 13ekin; eta hirugarren, Oskar Redondo, hau ere 13ekin. □

Bidezko merkataritza dendak gaur du azken eguna

BIDEZKO Merkataritza dendak jarria dago Tilosetan, Karitaseko lokalean, lehen tonbola egoten zen horretan. Herrialde ezberdinetako produktuak daude salgai, guztiak ere zuzenean bertatik erosiak eta prezio duinetan. Dendak gaur du azken eguna Hernanin, 10:00etatik 13:30etara eta 17:00etarik 20:00eta. □

SANTA BARBARA
PEUGEOT

PEUGEOT
Tailerrak: Larramendi 15 - Exp: Arantzazu 15 -Tel. 943 551 139 - 943 551 979

Auto eta furgoneta zaharrak, 2. eskukoak aldatzen ditugu

▶ R-Megane Coupe Sport 1.4	SS-BJ
▶ Peugeot 306 - XS A.A., Ilantak	SS-BF
▶ Seat Ibiza - Diesela 3 ate	SS-AJ
▶ Opel Corsa 1.2 5 ate	SS-AK
▶ Seat Ibiza - 1.2 5 ate	SS-AM
▶ Renault Express Diesela	SS-AS
▶ Lada Niva	SS-AP
▶ Land Rover - diesela	SS-P
▶ Land Rover - kaja, disesela	SS-AF

.....eta hainbat kotxe merke.

Urdin

Poltsa, lepoko, pitxi, lurrin eta abar

Italia eta Parisko azken moda, Olentzero eta erregeetako zure oparientzako.

URTE BERRI ON DENORI.

URDIN DENDA
Montebideo kalea 1 - HERNANI -
(EPO eta atletismo pista artean)

GasHernani

Gudarien Enparantza 14 - Tfnoa: 943 33 09 28 - 20120 HERNANI

■ HITZ BITAN

✓ EHIZA

Gaur goizean erabakiko da Hernaniko txapelketa. Txantxangorri elkarteko ehiza txapelketa gaur erabakiko da. Oraingo Gerardo Beraza dijoa lehenengo, gaur zortzi lortutako 606 punturekin (3 faisano eta 3 eper bota zituen). Bigarren Ivan Otaegi dijoa, hirugarren Ibai Artola eta laugarren Iñaki Lasarte. Gaur goizeko 09:00etan hasiko da proba, baina, goizeko 08:00etarako Larregainen egon beharko dute ehiztariek eta juezek. Lehengo hastean 60 eper eta 40 faisano askatu zituzten eta erdiak bota zituzten parte hartzaileek.

✓ SAN MARKOS

Mankomunitateko zozketan 41.376 zenbakia. San Markos mankomunitateak bi lagunentzako Kariberako bi daia zozketatu du, etxeko zabor arriskutsuak biltzeko kanpainaren barruan. Saritutako zenbakia 41.376 da. Egokitu zaionak hilabete dauka San Markoseko bulegoetara joateko: Gasteiz kalea 10, Donostia. Saritua agertuko ez balitz notario aurrean ateratako hurrengo zenbakia izango litzateke saritu.

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

- ▶ Taxiak: 943 550093
- ▶ Udaltzaingoa: 943 333288
- ▶ DYA: 943 464622
- ▶ Autobusak: 943 556662
- ▶ Anbulatorioa: 943 006666
- ▶ Jokalari anonimoak: 943 331103

☎ FARMAZIAK

- ▶ Egunez: Gomez
Kale Nagusia 14
☎ 943 554892
- ▶ Gaez: Bidaur
Lasarte. Jaizkibel plaza 2
☎ 943 362652

IRAGARKI MERKEAK

Emakume bat behar dugu, adineko pertsona bat zaindu eta etxeko-lanak egiteko. Interesatuak deitu (20:00etatik 22:00etara): **943 553766**

Neska euskaldun bat behar dugu, haurrak zaintzeko eta etxeko-lanak egiteko. Interesatuak deitu: **943 330308**

URREZKO EZTIAK



Ramon Sagarna eta Miren Aldasoro: 50 urte elkarrekin. ZORIONAK familiako eta inguruko guztien partetik.

JOMERIKI

Kale Nagusia, 7
☎ 55 00 32
HERNANI

AMEGAR
etxe tresnak
altzariak

amegar.net
etxe tresnak

Bisita ezazu gure web orria eta ikusi gure eskeintza.
www.amegar.net

Txirrita kalea 15 - HERNANI
Tel 943 551125 - Faxa 943 551603

**Arrigoain
jatetxea**

Urtarrilaren 1etik 15era
itxita egongo da.
Urtarrilaren 16tik
aurrera irekita.

Santa Barbara 87 (Harrobian)
☎ 943 55 00 97